

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3119

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 24koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke azterketen behin-behineko emaitzak onartzen dituena.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariak, 2024ko urtarrilaren 19an emandako ebazpenaren bidez (EHAA, 2024-02-01; 24. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke probetarako deia egin zuen. Deialdi horri dagokion azterketaldia bukatu ondoren, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke azterketen behin-behineko emaitzak onartzen dira honen bitartez. Hortaz,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.— Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke azterketen behin-behineko emaitzak onartzea. Interesdun bakoitzak Azterneten kontsultatu beharko ditu bere azterketen behin-behineko emaitzak: «Eskabideak < Hizkuntza-eskakizunak < Eskabideen kontsulta eta jarraipena < IVAPeko ohiko deialdiak (2024-01-19) < Emaitzak»

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau argitaratzen den biharamunetik hasita, interesdunek 5 egun balioduneko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteke Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariari.

Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, epe horren barruan, Azterneten bidez aurkeztu beharko dira: «Eskabideak < Hizkuntza-eskakizunak < Eskabideen kontsulta eta jarraipena < IVAPeko ohiko deialdiak (2024-01-19) < Erreklamazio edo errekurtsio berria».

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 24a.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.